

# Jalgi hadi plazara

## Euskara eta genero berdintasuna


Hasiera » Hizkuntzak » *Metaforak, hizkuntza gatazkak bistaratzeko (Made in Galiza)*

URT  
17

0

## Metaforak, hizkuntza gatazkak bistaratzeko (Made in Galiza)

*Atalak:* Hizkuntzak



Sechu Senderen liburua, Txerra Rodriguezek euskaratua.

**Sechu Sende** soziolinguista ezagutu nuen lehendabizi, galego teknikarien udako ikastaroen harira **elkarrizketa** egin niolako *Argiarako*. Idazlea baino, galego eragilea nuen buruan, eta hala irakurri dut 2007an argia ikusi zuen *Made in Galiza*. Aitor dezadan astoa kartolekin dabilen bezala irakurri dudala liburua, batik bat hizkuntza gatazkarekin zerikusia duten narrazioetan begiak iltzatuta. Egunerokoan arreta horri jartzen diodalako.

Irribarre etengabeaz irakurri ditut, goxo kontatuak daudelako. Baina euskaldunak, euskal hitzun izateko egunero gaintu beharreko hesiez ohartua bada bederen, ezin zozo aurpegiz leitu metaforaz eta fantasiaz jositako ipuinok. Narrazio goxo-gordinak direla esango nuke, eta gogora datorkidan ipuina Hitzik gabeko lekua da, egia esan, gordinetik goxotik baino gehiago duena. Kurdistango Varba herrian ez dute hitz egiten ez idazten, haien hizkuntza eta hitzunak jazarriak izan direlako. Haiena erabiltzea debekatu dietenez, besterenik ez dute ahoratuko.

Ez dut uste parekotasun soziolinguistikoak egiten hasteko narrazioak direnik, hizkuntza gatazka sorburu duten ipuin asko galizieraren egoerarekin daude lotuta eta ezin dira euskarara bere horretan ekarri. Euskal hitzun kontzientziatuak, soziolinguistika hizpide dela, literaturaz gozatzeko aukera izango du. Hizkuntza gatazkaz kontzientziarik ez duenari, agian, bihotzera ailegatuko zaizkio ipuinok. Bihotzetik burura eta burutik mihirako bidea egitea ederra litzateke.

*Made in Galiza*. Sechu Sende. Txalaparta, 2012. Itzultzailea: **Txerra Rodriguez**.